

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 jaitsi ziren 2015eko lehen hiruhilekoan

Prezioen eraginik gabe, alegia finkoetan, salmentak %1,1 gehitu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2015eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,9 gutxitu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %0,7 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,2 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa (p). I/2015

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-0,9	-1,2	1,1	0,0
Araba/Álava	-0,7	-2,1	2,8	-0,8
Bizkaia	-1,4	-1,7	0,1	-0,2
Gipuzkoa	-0,1	0,1	1,9	0,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-2,0	-1,7	-1,9	-1,9
Elikagaietan espezializatuta	-5,0	-1,2	-5,2	-2,0
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-0,4	-0,9	-0,1	-0,7
Beste produktuak	2,7	0,8	3,5	0,9
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	1,6	-0,1	2,3	0,7
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	4,1	0,2	4,8	-0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,6	-1,7	1,5	-0,5
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	6,1	2,1	7,1	3,1
Automoziorako erregaia	-13,7	-5,3	-1,0	-2,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,7	-0,3	1,2	-0,2
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	0,7	-0,1		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak.

Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %2,0 gutxitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %2,7 gehitu eta Automobilgintzarako erregaian %13,7 jaitsi, beti ere 2014ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %5,0 gutxitu zen, elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %0,4. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %6,1 gehitu da; Etxeko ekipamenduan %4,1, Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %1,6 eta Kontsumo beste ondasunetan %0,6.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nominalki: Bizkaian %-1,4, Araban %-0,7 Gipuzkoan %-0,1.


Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,1 gehitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan; tasa positiboak dituen laugarren hiruhilekoa jarraian

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,2ko gehikuntza erreala izan zuten aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2015eko lehen hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan ez da aldaketarik izan (%0,0) 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala, %1,9; gainerako produktuetan %3,5eko gehikuntza erreala, 2014ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %1,0ko jaitsiera.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-5,2 dugu espezializatuan; Elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-0,1. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %7,1 gehitu

da; Etxeko ekipamenduan %4,8, Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,3 eta Kontsumo beste ondasunetan %1,5.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Araban %2,8, Gipuzkoan %1,9, Bizkaian %0,1.

Euskal AE osoan, 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,1 murriztu zen 2015eko lehen hiruhilekoan, baina %0,7 gehitu aurreko urtearen aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko datu-bankua